

ERLEEN AZKEN ZIZTADA

KEPA
IRIBAR

erein

ERLEEN AZKEN ZIZTADA

39

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko azaroan

Azalaren diseinua eta maketazioa:

Erein

Azaleko argazkia:

Beñat Gereka (Txikita Ikus-entzun)

© Kepa Iribar

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-9109-982-6

L. G.: D 989-2025

EREIN Argitaletxea.

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

erein@erein.eus

www.erein.eus



Inprimatzailea: Gertu


Zubillaga industrialdea 9

20560 Oñati

T 943 78 33 09

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



ERLEEN AZKEN ZIZTADA

KEPA IRIBAR

erein

Distintas guerras, distintas ciudades
y el mismo fuego que quemó Gernika.

FITO & FITIPALDIS,
La medalla de cartón

Utzidazu kontatzen, behin ume zirela,
amestu zutela, itsasoaren beste aldeaz,
hegan egiteko hegoak
bakean bizitzeko
ez dute besterik nahi.

IZARO, *Errefuxiatuena*

Jende guztiak ditu deabruak,
kontua da jakitea deabru horiek
zenbateraino diren jasangarri.

JOËL DICKER,
La Vérité sur l'affaire Harry Quebert

HITZAURREA

1944ko abuztua, Bidasoaren ibaiertza

Intsektuen hotsa baino ez. Bero handia egin du egunean zehar, eta horrek guztiak aztoratu ditu. Eguzkia ezkutatu denetik zarata hori nagusitu da. Autoa bide bazterrean utzi, eta oinez pare bat kilometro egin dituzte. Jarraian, ibaier-tzean toki egokia aurkituta, ezkutatu egin dira.

Uniforme maiztuak erantzi eta poltsa batean sartu dituzte. Belar artean ezkutatu dute poltsa. Kaleko arropa arruntak jantzi ostean, zain daude. Lau gizonak elkarren alboan jarri dira, armak eskuetan dituztela, pikotxean pare bat, belaun bat lurrean pausatuta besteak, azkena belarre-tan etzanda dago. Bidasoa ibaira adi begira denak. Bosga-rrena, apur bat aldenduta, bakarrik. Uniformeak eranzten ari zirela, guztien burua, Franz Boelcke tenientea, hurbil-du, eta zakar esan dio:

—Uniformea erantzi aurretik argi esango diat: sekula ez duk merezi izan hau paparrean eramatea, traidore koldar halakoa!

Eta eskuarekin indartsu tira eginez, jakaren eskuin aldean josita daukan *Wehrmachtsadler* irudia kendu dio: svastika baten gainean hegala zabalik dituen arranoa.

Ez dio ezer erantzun, geldi geratu da, ez dio axola, dagoeneko ez dio ezerk axola.

Une horretatik aurrera isiltasuna nagusitu da gizon haien artean. Atezu daude. Intsektuak ez antza, haiek ez dira isiltzen. Haiei bost axola gizakien xextrak eta ezinikusiak, bost axola gerra handi baten erdian baldin badaude. Ilargiak argi handia egiten du, gizon hauei komeni zaiena baino handiagoa. Aurpegien zuria kamuflajerako margo ilunekin estali dute. Ilearen horia, berriz, buruko beltzekin. Hodei handi batek estali du ilargia, eta tarte batean ilun egongo da dena. Urduri daude. Ofizialak izan ezik, inork ez daki zein agindu jaso duten, zergatik dauden han, zer egin behar duten. Badira bi hilabete aliatuak Normandiako hondartza batean agertu zirenetik. Orduetik denak daude urduri. Egiari zor, lehendik hasi zen ezinegona. Martxoaren amaieran Miarritze bonbardatu zuten aliatuek. Errakuntza, omen. Parma aireportua suntsitu beharrean hiriari eraso. Bost gizon haiek ozta-ozta libratu ziren onik, ia miraria izan zen bizirik ateratzea. *Liberator* hegazkinen bonbak iritsi baino hogeita minutu lehenago Angleterre hotolean zeuden, alemaniar soldadu ugariren hilobia izango zen eraikuntzan. Orain, euren herrikide gehienak iparralderantz ihesi doaz. Bertan elkartu, eta estatubatuar, ingeles eta bestelakoei aurre egiteko. Baina azken unean beraiek beste agindu batzuk dituztela esan die euren ofizialak, eta Bidasoa ibaira jo dute. Azken hilabete luzeetan itsu jarraitu

dioten tenienteak agindu zehatz bat dutela esan die, baina ezin diela oraindik jakinarazi.

Adi daude ibaiak zein hots ekarriko, eta bat-batean gizonetako batek ia xuxurlatuz esan du:

—Erne! Zerbait entzuten da.

Erne egoteak metrailadoreak prest izatea esan nahi du. Hiruk dituzte eskuetan halakoak, buruzagiak pistola dauka. Bosgarren gizona, lurrean eserita apur bat aldenduta dagoena, armarik gabe dago.

Poliki uretan sartzen eta ateratzen diren arraunak dirudite. Antonio da ontzian datorrena. Hondarribiko gizasemea. Baserritarra jaiotzaz eta lanbidez, baina eguneko lanei, gaueko estraperloa gehitzen die batzuetan. Muga bertan izanda aukera ona da. Dirua irabazteko beste modu bat. Azkenaldian, diru iturri oparoagoa bihurtuta dauka baserriko lana baino. Batzuetan produktua, besteetan pertsonak. Naziengandik ihesi zihozenak pasatu ditu sarritan, Comète deitzen duten sareko kideek laguntza eskatu izan baitiote, gerra frontera itzuli nahian alemaniarrei hanka egin dieten hegazkin pilotu ingelesak esaterako. Edo Frantziatik Espainiara igaro nahi duten herritarrak. Entzun duenez, orain alemaniarrek dira ihesi dabiltzanak, baina iparralderantz omen doaz, aliatuengandik eskapuan. Gau hartakoa, ordea, inoiz jaso duen enkargurik bitxiena da. Badaezpada ezin ezetz esan.

Ontzitik adi begiratzen du lehorrera, esan dioten tokian dago gutxi gorabehera, baino ez du ezer ikusten. Supituan, ur-ertzeko belarrak mugitu egin dira, eta hurbildu denean, bi metrailadore ikusi ditu beragana zuzenduak.

—Arrantzarik ba al da Bidasoa ibaian?

—Balego ere arrantzaleak falta.

Adostutako esaldiak trukatu dituzte. Denak lasaiago. Bost gizonak ontzian sartu dira. Horren aurretik armak belarretara bota dituzte, hori da jasotako agindua. Pistoladunak bere Lugerra galtzetan sartu du, ezkutuan badaezpada. Esku artean daukan larruzko poltsari, berriz, estu heltzen dio, babestu nahian.

Arraun egin du Antoniok. Ez dute elkarrekin hitz egiten. Kezka apur bat ere badu baserritarrek, ez baitu oraindik ulertzen nola den posible eginkizun hartan parte hartzea. Kontrabandora irteten den gau guztietan, Guardia Zibila izan ohi du buruhauste nagusia. Eta gau hartan, bost gizon ari da Espainiara sartzen Guardia Zibilak eskatuta.

Ibaia arazorik gabe zeharkatu dute. Urak lasai jaisten diren inguruan lehorreratuko dira, hantxe izan behar dituzte zain guardia zibilak. Hori da esandakoa behintzat.

—Erne badaezpada, ustez lagunduko digute, baina...
—esan die bere gizonei ontziaren aurrealdean dagoenak.

«Kontxo! Hauek alemaniarrek dituk», pentsatu du Antoniok.

Zuhaitz artetik atera dira guardia zibilak. Miguel Alonso kapitaina buru. Irribarre maltzurra ahoan, ia beti bezala. Tripa oparoa ere bai. Begi txiki urduriak, bibote mardula. Bere gizonen artean askok *la morsa* ezizenez eza-gutzen dute. Baina ez da komeni hark entzutea, trumoi bezain suminkorra baita haren haserrea, erraz lehertzen dena. Inguruko estraperlisten amesgaiztoa.

—Ondo, Antonio, portatu haiz.

Gutun-azala luzatu dio poliziak ontziko patroiarari.

Zabaldtu, eta barruan begiratu du.

—Hau ez da adostutakoa, gutxiago eman didazu —esan dio Antoniok.

—Nahi al duk kuartelean salaketa jarri, neuk lagunduko diat —Alonsok barre eginez.

Algaraka hasi dira gainerako guardia zibilak.

—Ez, ondo dago honekin —atsekabetuta.

—Bai. Eta badakik, bihartik aurrera berriz ere etsai; estraperloan harrapatzen bahaugu, larrutik ordainduko duk.

Hatz potoloarekin lepoa alde batetik bestera mozteko keinuz lagundu ditu hitzok.

Antioniok buruarekin baietz egin eta ontzian urrundu da. Denboralditxo batez gauak lo egiteko erabiliko dituela erabaki du une horretan bertan.

Alemaniarrak isilik daude espainiarrei begira.

—Ongi etorri —esan die Alonsok militarren agurra eginez.

Soldadu alemaniarren buruak pauso bat aurrera egin eta bere burua aurkeztu du.

—Franz Boelcke, Wehrmacht-eko lur armadako hogeita hirugarren batailoiko...

—Ez jarraitu! Ez dago lau haizeetara zabaldtu beharrik nortzuk zareten, ezta? Ez dakigu nork entzun diezagukeen.

Alemaniar ofizialak ulertu du zer esan nahi dion eta baietz egin du buruarekin.

Guardia zibilek hurbil utzi dute kamioia. Aurrealdean, gidariaren alboan sartu dira Alonso eta Boelcke. Gainerako poliziak eta ibaia zeharkatu berri dutenak, atzean.

Lau guardia zibil eta lau alemaniar daude atzealde horretan. Hauetako bat, aldenduta, bakarrik, ibaiertzean zegoen bezala. Espainiarretako batek zigarroak eskaini dizkie. Hiru alemaniarrek baiezkoa esan diote, eta laugarrenari eskaini dionean, besteetako batek eskuaz eragotzi dio. Keinu bidez adierazi dio hari ezer ez emateko. Aldenduta dagoenari ez dio axola, dagoeneko ez dio ezerk axola. Burumakur doa, bere patuari aurre egiteko prest.

Boelckek Alonsori azaldu dio bere meneko gizonetako batekin arazoak izan dituela, zerbait egin beharra daukala harekin. Guardia zibilak irribarre egin dio.

—Badakit zer behar duzun.

Kamioiak Hondarribia eta Donostia arteko kilometroak poliki jan ditu. Isilik bidaiatu dute barruan doazena. Donostiako kaleetan ez dute inor ikusi, goizaldeko ordu biak pasatxo dira, ez da jendea kalean ibiltzeko ordua. Eta inor gurutzatu izan balute ere, ezkutatzen saiatuko litzateke ia ziur, guardia zibilez betetako kamioia ez da gau ilunean inork aurkitu nahi duen oparia.

Ondarretara hurbilduz egin ditu kamioiak azken metroak. Motorra gelditu eta Alonso jaitsi da. Eraikuntzaren atea jo du, eta hamar bat minutuz barruan egon ondoren atera da. Berriz ere kamioira hurbildu, atzealdera jo, eta bakarrik dagoen alemaniarri esan dio:

—Zu, zatoz nirekin —zakar, ia beti hitz egin ohi duen moduan.

Kaleko arropak jantzita dituen soldadu alemaniarra kamioiaren aurrealdetik igaro denean, Boelckeri begiratu dio, lagun izandakoari. Hori iragana da, mundua hankaz

gora jarri aurretik, euren bizitzak pikutara joan aurretik gertaturikoa. Hark ez du mugimendurik txikiena ere egin, ez dio begiratu. Guardia zibila alboan duela sartu da Ondarretako kartzelan.

Eraikin hura zer den antzeman duenean, pentsamendu bakarra nagusitu zaio: «Hemen, agian, nire ekintza txar guztiengatik ordaindu beharrekoa ordaindu ahal izango dut».

Kantauri itsasoa gogor ari da jotzen euskal kostaldea. Bata bestearen atzetik, olatu erraldoiak ari dira iristen harkaitzen eta hondartzen kontra. Handienek izango dituzte sei bat metro. Bizpahiru egun daramatza horrela. Iragarpenek diotenez, hurrengo egunean asko apalduko da ozeanoaren indarra. Badirudi itsasoak berak ere badakiela, eta azken gaua baliatzen ari da lurrari bortizki oldartzeko. Danba jotzen du olatu bategi. Danba hurrengoak. Etenik gabe. Danba. Atsedetik hartu gabe. Danba. Berdin zaio gaua ala eguna den. Danba. Ez dio axola jai eguna edo lan eguna. Danba. Gizakien bizitzan zerbait garrantzitsua gertatu edo egun arrunta izan. Danba.

Gaztetape hondartzara alderik alde lehertzen diren olatu handiak iristen ari dira, apar zurizko mendiak bailiran. Mendeetan bezala, San Anton mendiak babeska eskaintzen dio gau hartan ere Getariako portuari, eta barruan lotuta dauden arrantza-ontzi, *bafore* herritarrentzat, zein

bestelako itsasontziei. Uhinek beren bideari jarraitzen diote portuaren albotik, eta Getaria Zarautzekin lotzen duen errepidearen kontra lehertzen dira indar guztiz, euren apar zuria zeruraino igoz. Naturaren indar erakustaldi aparta. Errepideko tunelaren parean, ia Lasuntalai ingururaino iristen dira olatu lehertuen zipriztinak. Antzina, Malkorbe badia zaintzeko erabili ohi zen talaia paregabea; egun, izena baino ez da gelditzen. Izena eta Altzako harri tentea.

Baina ez dago inor hura ikusteko. Izan ere, udazkeneko lan egun buruzuri bateko goizaldeko ordu biak dira. Jendea bere etxeetan dago, lo gehienak.

Olatuek lehertzerakoan ateratako hotsa, herriko edozein puntutatik entzun daiteke. Hori bakarrik ez. Itsasoak, bere arima zabalduko balu bezala, ur partikula txikiak, hezetasuna, herriko kaleetan barreiatzen du. Getariako kaleak bustita daude, itsasotik datorren bisutsa da. Kale Nagusiko farolek, hori koloreko argi ahula erakusten dute, inguruan argi-koroo baten modukoa dutelako. Itsasoa da, bere eremutik atera eta mingain erraldoi baten moduko lainoa zabalduz, gizakien munduaren jabe egin nahiko balu bezala: «Hemen nago».

Elkano kaleko kantoitik bi figura ari dira Kale Nagusi-
ra jaisten. Isilik doaz. Gorputza uzkurtuta, eskuak jertseko poltsikoetan sartuta, burua kaputxaz estalia. Batak sei urte daramatza Getarian. Zortzi, Europan. Bestea iritsi berria da herrira. Europan, pare bat hilabete daramatza. Afrikatik etorritako bi mutil dira. Gaua bezain beltza dute larru azala.

Kale Nagusian metro gutxi egin dituzte elkarrekin. Beste kantoï baten parean geratu dira. Aldamar kalera ematen duena, *Katu kalera*. Beteranoenak hitz egin du.

—Orain hartu atseden. Egin lo. Teo gizon jatorra da, lagunduko dizu. Eta gu ere horretarako gaude. Zerbait egingo dugu, lasai.

Gazteak hortz zuriak erakutsi ditu irribarre egin denean.

—Asko eskertzen dizut, Moussa. Anaiaren pare ari zara portatzen.

Elkarri bostekoa eman diote.

Gazteena kantoian gora abiatu da. Moussa, berriz, Kale Nagusian gora, plaza alderantz. Oinez abiatu denean, dozenaka metro batzuk gorago geldituta dagoen furgonetak argiak piztu, eta beherantz hasi da, oso poliki. Ibilgailuaren fokuek begietan min egin diote, eta burua apur bat makurtu du. Bere parera iritsi denean, alboko irristailu-atea zabaldu da bat-batean. Bi besok indartsu atxiki dute Moussa, egoera hark ezustean harrapatu baitu, eta tiraldi bortitz batekin furgoneta barrura sartu dute.

Konturatzera, txano ilun bat jarri diote buruan, eta ondoren ezereza etorri zaio, kolpea eman baitiote. Furgonetak abiadura handitu eta Kale Nagusian behera jarraitu du.

Lekuko bat izan da, ordea. Gertaturiko guztia ikusi du kale kantoi izkinatik Moussaren lagunak. Makurtu, eta lurrera jausitako zerbait hartu du esku artean, furgonetaren irristailu-atea itxi aurretik barrutik eroritakoa. Ondoren, korrika joan da kantoian gora.

Moussari zorabioa apur bat pasatu zaionean, garondoan mina sentitu du. Eskua bertara eramaten ahalegindu denean konturatu da bi eskuak bizkarrean lotuta dituela.

Ibilgailua martxan doa. Erraietarainoko beldurra sentitu du. Gogor ahalegindu da eskuak askatzen, baina alferrik. Ez dauka arrastorik txikiena ere nortzuk diren tipo haiek, ezta zergatik bahitu duten ere. Baina argi dauka, ate hura zabaltzean ihes egitea lortzen ez badu, gero askoz zailagoa izango dela.

—Hemen geratuko gaitun, apur bat jolastu nahi dinat berarekin.

—Baina zer diok? Arriskutsua duk, furgonetaz bertaraino joan eta kito.

—Lasai, arrebatxo. Zer egin behar digu ba? Lotuta zagon eta!

—Ez genikek pitokeriarik egin behar. Bahiketa ondo atera zaiguk, ez ezak orain hanka sartu!

—Adèle, gero eta jenio biziagoa daukan, ozpin hutsa haiz!

Txofer doa neska. Argala eta izpitsua. Nerbio hutsa. Anaia, aldiz, lodi samar dago, eta ez da mugimendu arineko mutila, baina bai oso indartsua. Bahitu berri duten gizonak ez die ulertzen zer esaten ari diren, hizkuntza arrotza egiten zaio.

Lodikotea furgonetatik jaitsi, irristailu-atearen parean jarri, eta axolagabe ireki du atea, bertan sartu berri duten gizona lurrean etzanda, konorterik gabe aurkituko duela-koan. Ezustean, atea zabaldu orduko, gorputzaren indar guztia erabiliz jauzi egin, eta sorbaldaz jo du Moussak bere bahitzailea. Atzeraka erori dira biak, lokatzetara. Kolpearen inertziak buruko estalkia erorarazi dio bahituari, nahiz eta eskuak loturik jarraitu. Eta horrelaxe, bi eskuak bizkarrean

dituela, begirada azkar bat bota du ingurura. Gauaren erdian, ilargiaren argitasunak lagundu dio non dagoen kokatzen: herritik mendi aldera joanda daude. Furgoneta mahasti baten izkinan dago. Behera begiratuta, errepidea ikusi du. Korrika abiatu da.

Neska furgonetatik jaitsi da biraoka.

—Ostia! Kuna, esan diat... Ondo al hago?

Dilindan geratu da. Hitz totelka erantzun dio.

—...Bai... Baietz uste dinat...

—Ba altxa eta harrapatu dezagun azkar!

Mahastiaren errenkadan goitik behera doa Moussa, baina deserosoa da eskuak lotuta korrika egitea. Gainera, lainoren batek ilargia estalitakoan, erabat ilunpetan aurkitzen da, eta haztamuka ibili beharra dauka, derrigor. Une batez geratu egin da. Mahatsondoak alde batera eta bestera. Behean errepidea, baina urrun oraindik. Goitik datozen hitz hotsak entzun ditu, bere beldurra elikatuz.

—Hik begiratu hortik! —neskaren ahotsa—. Nik hemendik, eta adi!

Hurbiltzen ari dira. Hanka hotsak bere errenkada beretik datozela esango luke. Aurrean, pare bat metrora, bidoi huts batzuk ditu. Bertan ezkutatu daiteke. Pentsatu eta egin. Bidoien atzean makurtu da.

Handik segundo gutxira, goitik behera datozen pau-soak entzun ditu. Belarra eta adarrak, gero eta hurbilago zapalduak. Bidoien inguruan geratu da jarraitzailea. Aho-pean hitz egin du.

—Non hago, beltza? Ezin izan duk urrutira joan. Aurkituko haut.

Beldurra sumatu du Moussak, erraietaraino sartuta, izua, latzikara. Altxatu eta korrika hasi da, zuzen aurrena, beherantz ondoren, berriro zuzen, gora apur bat, zuzen gero. Jazarlea nahastu nahi du.

—Hortik joan dun! Adèle, etorri!

Arnasestua gero eta nabarmenagoa da. Nekea batetik, beldurra bestetik. Oinak bustirikumatzen ditu, belarra hezea dago oso. Lubera dago guztia.

Mahastiaren erdian, eraikuntza txiki bat ikusi du. Txabola bat. Haren atzean ezkutatu, arnasa apur bat lasaitu, eta gero eta hurbilago ikusten duen errepidera heltzea pentsatu du: «Ez daukat urruti. Errepidera heltzen banaiz, ihes egitea lortuko dut. Une txiki batean atsedeen hartu, eta gero jarraitu».

Txabolaren hondora iritsi da. Atzealdean ezkutatuko da. Helburu horrekin eraikuntza inguratu duenean, us-tekabeen, saihetsetan kolpe izugarria eman diote. Hesola handi bat eskuetan duela agertu da Adèle. Ilunpe hartan, itxura beldurgarria dauka makila eskuetan hartuta.

—Nora hoa ihesi, makako halakoa? Hire erruz izerditu eta zikindu egin nauk!

Eta beste kolpe bat eman dio, bizkarrean oraingoan. Moussak ulertu du ez duela ihes egingo. Negarrez hasi da.

Bidaia laburra izan da furgonetan egin dutena. Berriro burua estalita, eskuak oraingoan brida batez lotuta, are estuago, eraman dute bahitua. Abiapuntua kontuan hartuta, ibilgailuak egindako bidea zein den antzematen ahalegindu da, baina alferrik izan da. Furgoneta gelditu denean, bi beso indartsuk heldu, eta ia arrastaka daramate. Metro

gutxi batzuk dira. Ondoren, ate hotsa, eskailera batzuk jaitsi, eta kanpoan baino hotz gehiago egiten duen nonbaitera sartu dute.

Lepoko bat jarri diote, kate bati lotua, txakur bati bezala.

—Hauxe duk hire hotel berria. Orain eskuak askatuko dizkiat. Txorakeriaren bat egiten baduk, larrutik ordainaraziko diat, entzun?

Brida hautsi eta eskuak libre sentitu ditu. Igurtzi egin behar izan ditu, odolak bere bidea berreskuratu dezan, hain estu eduki ditu lotuta. Bat-batean, sekulako ukabilkada eman dio Kunak sabel inguruan.

—Hau ni lurrera botatzeagatik.

Moussak belaunikatu egin behar izan du arnasa berreskuratzeko. Buruko tapakia kendu, eta alde egin du. Bide erdian buelta eman eta destainaz zuzendu zaio:

—Hitz egiten entzuten bahaut, damutuko zaik, beltza.

Afrikarra pixkanaka bere onera bueltatu da. Ingurunea behatzen hasi da apurka. Oso ilun dago. Lurra zementuzkoa da, baina margotua dago. Ez du kolorea antzematen. Bi eskuekin lepoari lotuta daukan kateari heldu, eta hari jarraituz, katea lotuta dagoen zutoin moduko batera heldu da. Metalezkoa da. Lurrean sartuta dago, zementuarekin bat eginda. Askatzea ezinezkoa izango da. Horma haietako bitan leihoak daude, goian, bere burutik gora ia bi metrora. Leihotik ibilgailu baten argiak sartu dira. Furgoneta ia ziur. Beraz, eraman duten tokia lur azpian dagoela ondorioztatu du. Denetarik dago: mendirako lanabesak, hesolak, txarrantxa kateak, palak, aitzurrak... Denak pareta baten

alboan antolatuta. Soka batzuk daude txoko batean, eta alboan lau aingura. Izkina batean, altzairu herdoilgaitzeko depositu batzuk ikusi ditu, hiruzpalau daude. Lan egiten duen jatetxeko nagusiak, behin, langile guztiak txakolindegi batera eraman zituen bazkaltzera, uda oparoa ospatzeko. Moussak badaki upategi batean dagoela. Ez dago beste ezer askorik. Toki umela da. Iluna.

Deposituen arteko ilunpetik sortu den soinu bat entzun du. Aiene baten modukoa. Lurrean eserita norbait dagoela iruditzen zaio.

—Nor zara zu? —esan dio ia xuxurlaka.

* * *

Gurpilak bizi irristatzen dira bidegorrian barrena. Sigi-saga dabil abiadura mantenduz. Gorputzaren mugimenduaz soilik ari da aurrera egiten, oinekin lurrean bultzadarik eman gabe. Gurpilen gainean, egurrezko ohol dotorea, zuhaitz mota ezberdinak uztartuz egina. Muturretik hurbil, erronbo baten barruan *abian* hitza. Egiari zor, Aitor Letamendia ezustean harrapatu zuen Idoia lagunaren opariak. Elkanoren Lehorreratzearen kasua konpondu zutenean, Getarian eskuz egindako zerbait erregalatu nahi ziola esan zion, eta detektibeari ohikoena etorri zitzaion burura: «Edo txakolina izango da, edo arrainen bat kontserban». Oparia zabaltzen eta *surfskate* bat ikusi zutenean, zur eta lur geratu zen. Dibertigarria da oso lehorrean surfa egitea.

Oraingoan ez da, ordea, libertimendu hutsa. Lanean ari da. Kursala gaingitu du bidegorrian. Jende ugari dabil

paseatzen. Udazkeneko ostiral arratsalde argitsua da. Zerua urdin eta eguzkia lagun. Bera baino ehun bat metro aurrerago doan bikote baten atzetik doa ikerlaria. Saguesera iritsi eta itsasora begira jarri dira biak. Halaxe egin du Aitorrek ere, metro batzuk atzerago.

Sekulako olatuak daude Zurriolan. Iragarpenek asmatu egin dute: itsasoa, aurreko gaueko azken oldarraldiaren ondotik, mantsotzen hasi da. Bart, lo hartu aurretik, sekulako apar zuriak ikusi ditu lehertzen Groseko bere etxetik. Goizean, esnatutakoan, beste itxura bat zeukan itsasoak, orain bezalakoa. Jende ugari dabil surfean. Berak, iratzarri orduko hartu du eguneko bainua, pare bat orduz egon da uretan, sekulako gozatua.

Motxilatik argazki kamera atera du. Orduantxe iristen ari da hondartzara olatu multzo bat. Hego haizeak orrazten ditu бага eder hauen gandorrak, euren forma borobilduz, surflariantzat are erakargarriago eginez. Arraun egin eta taulan zutik jarri den surflariari atera dio argazkia. Mor-doxka bat argazkilari daude gauza bera egiten; denak adi, objektiboak itsasorantz zuzenduak dituztela.

Aitorrena, ordea, itxurakeria baino ez da. Bere benetako xedea ez da olatuei argazkiak ateratzea. Kamerarekin bikotea enfokatu du. Biak itsasoari so. Gizonak gerritik oratu du neska, eta beregana hurbildu. Neskak, bi besoekin inguratu du haren lepoa.

Ikerlaria argazkiak ateratzen ari da. Errutinazko lana. Inork pentsatzen badu detektibe baten egunerokoa emozioz beterikoa dela, gustura azalduko lioke Aitorrek ezetz, kasurik gehienetan, oso monotonoa dela. Zaintza ordu

asko, Interneten arakatzea... Eta kasuak ere, gutxi batzuk izan ohi dira misterio erakargarriak. Orain esku artean daukana bezalakoak asko: emaztea engainatzen duen Iruñeko enpresa gizona, lantegian hartu berri duten neskaz gutiziatu dena. Emazteak kontratatu du Aitor. Amorante bikotea Donostiako hotel batean asteburua pasatzekotan da. Afaltzera joan aurretik, paseo erromantikoa itsasoari begira. Ikerlariak, hoteletik irten direnetik jarraitu die.

«Lepotik heldutako hau gustatuko zaio emazteari. Orain, muxu ematen badio, kito», pentsatu du. Une hartan musukatu dute elkar. «*Voilà*, harrapatuta. Goza ezazue asteburuaz, ederra datorkizue eta, batik bat zuri, Romeo».

Argazki kamera gorde, eta olatuei begira jarri da. Berriz uretara sartzea aztertzen ari da. Olatuek erakartzen dute, baina goizean pilaturiko nekeak, eta batik bat, atzera berriz neopreno bustia jantzi beharrak, nagitzen dute. Telefono hotsak atera du pentsamendu horietatik. Idoia da.

—Kaixo, Aitor! Zer zabilta?

—Ehizan.

—Ehizan? Baina zer diozu?

—Senar *gaiztoak* ehizatzen. Zer nahi duzu?

—Biharkoa baieztatzea baino ez. Mendi buelta egingo dugu, ezta?

—Bai, gogotsu nago!

Uretara ez sartzea erabaki du. Bikoteari jarraituko dio, agian beste argazkiren bat aterako die.

* * *

Ordu asko daramatza zulo hartan sartuta. Goizean, erai-kuntzaren kanpoaldetik heldutako zarata handi batek esnatu du. Paretetan dauden leihoetatik argia sartzen da, baina berak bezperan iritsi zenean uste izan zuena baino gutxiago. Izan ere, kristalak ilunak dira, kanpotik barnealdea ikustea eragozten duten horietakoak.

Hala ere, nahikoa argiztapen bada bezperan antze-
mandako pertsona hobeto ikusteko. Bera bezalaxe, txakur
baten moduan daukate lotuta. Ez du lortu hark ia ezer esa-
terik. Galdetu dio nor den, zein toki den hura, nortzuk
bahitu dituzten... Baina alferrik. Jasotako erantzun baka-
rra zera izan da:

—Egon zaitez isilik, mesedez! Haiek etortzen badira
okerragoa izango da eta!

Mutil gazte bat da. Azal zurikoa. Ia etengabe dago ja-
rrera berean: lurrean eserita, burua belaun artean ezkuta-
tuta. Lepoko kateak baimentzen dion guztia ezkutatzen da
depositu haien artean.

Moussa gose da. Goizaldetik ez da bahitzailerik ager-
tu. Orduak joan dira eta ez du ezer jan. Berriz ere argia
makaltzen ari da, iluntzen hasita dago, beraz, egun osoa
eman dute mokadurik probatu gabe.

Upustean zabaldu den atearen hotsa entzun da. Ba-
daezpada lurrean eseri da. Bezperan, furgoneta madarikatu
hartan sartu zutenetik, argi dauka aitzakiarik txikiena nahi-
koa dutela kolpeka hasteko.

Eskaileratan behera ikusi ditu bahitu zuten biak.

—Hemen dira gure gonbidatuak! —esan du neskak—.
Eroso al zaudete?

Ez du erantzunik jaso.

—Erantzunik ez? Hau da esker txarra!

Moussarengana inguratu da.

—Beltza, eroso al hago? —esan dio ostikada txiki bat emanaz hanketan.

—Bai... bai, eroso nago.

—Eta zer esaten da?

—Eskerrik asko!

—Begietara begiratu nirekin hitz egiteko! —egin dio oihu.

Moussa beldur da. Burua altxatu du.

—Es... Eskerrik asko! —esan du apal.

—Hori hobeto zagok. Gose izango haiz honezkero. Hi bezalako tximuek hau jango ditek gustura, ala?

Platano bat bota dio albora. Tximuen mugimenduak eta hotsak imitatzen hasi da neska. Pauso batzuk atzerago dagoen bere anaia barrezka hasi da. Moussak ez dio aurre egin, emandako fruta irensten ari da, bere duintasunarekin batera.

* * *

Larunbata ere eguzkitsu esnatu da. Bezperako eguraldi bertsua dago. Baita olatuak ere. Telefonoz saio luzea egin du bart, kontratatu duen emakumearekin. Emailaz bidali dizkio ateratako argazkietako batzuk. Saguesen bikotea musuka, jatetxe batean elkarrekin goxo afalduz... Amorruez oihuka hasi da aurrena, negarrez ondoren, triste. Lasaitu denean, egoerari aurre egiteko erabakimena hartu du, eta eskerrak eman dizkio Aitorri.